



Gaurko (ostirala) 20:00etan hasiko dira Antxoko festak. I. Saiz

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Aurreko urteetako sanfermin-ekin alderatuta, ezaugarri nabarmen bat dute aurten-
go Antxoko festek: egun bat gehiago dute. Asteburu bat eta San Fermin Eguna *harrapatzeko* erabaki hori hartu behar izan du Antxoko Jai Batzordeak. Agian, batzordekideentzat buruhaustea izan da beste egun oso bat edukiz betetzea; herritarren partetik kexarik ez, egun eta gau bat gehiago izango dituztelako festaz gozatzeko.

Gaur (hilak 3, ostirala) hasiko dira Antxoko San Fermin Festak, eta hila-
ren 8ra arte iraungo dute. Aurretik ere izan dira festen egitarauaren barruko ekitaldiak, ordea. Osotara, ia 100 hitzordu daude batzordekideen lanari esker osatu den jardueren zerrendan. Horietatik jende gehien bilduko duena gaurkoa da, txupinazoa: 19:30ean izango da festen aurkezpena, eta 20:00etan abiatuko dira ofizialki sanferminak.

Beste berritasunetako bat, festen eremua. Izan ere, hilabete askoz Antxoren erdigunea hankaz gora izan da topoko geltoki berriaren lanengatik, eta aurten behingoz Gure Zumardia eraberritua festetako une askoren agertoki izango da. Bertan izango da oholtza nagusia, baita Antxoko Topagunaren gunea ere; Papinena Biteri plazan jarriko dute.

Arropa zuri-gorria prest dute antxotarrek. Orain, janzkera horrekin kaleak bere egitea besterik ez zaie tokatzen. Hori horrela izan dadin latz egin du lan Antxoko Jai Batzordeak. ■

Egun bat gehiago zuri-gorritz



Gora San Fermin eta ibili fin!

Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00

Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTZO

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA
20100 Erretereria
Tel.: 943 510 450
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus
PAPER KALEA, 1
20400 Tolosa
Tel.: 943 672 900

Lanbide heziketa baina askoz gehiago





Marealta ere festa eremu izango da sanferminetan. U. E.

Txalupek Antxoko ibaia konkistatuko dute

MIKEL DEL VAL GARCIA

Aurtengo sanferminak berritasunekin iritsiko dira Antxora, eta ez soilik egun bat gehiago izango dutelako. Ohikoak diren jardueren gain, antxotarrek ekintza berri bat topatuko dute jaietan, Papineko Gazteriak Txalupinen Konkista izeneko jarduera egingo baitu hilaren 7an, San Fermin egunean. Txalupek barrutiko ibaia hartuko dute 19:30etik aurrera,

eta hainbat proba egingo dituzte bertan, marea goian dela.

Papinen belaunaldi ezberdinetako kuadrillak biltzen direla, eta gazteagoak direnak gauzak antolatzen eta ahotsa nahiz hitza hartzen hasi direla jakinarazi du Ekain Iribarren gazte taldeko kideak. Antxoko erreka beti «tabua» izan dela adierazi du Iribarrenek. «Zabortegi

moduko bat bezala ikusten da, zikina dago eta ez da erabiltzen». Papineko kuadrilletako batek ibaia herriari hurbildu nahi zion, espazio horri erabilera emateko, eta ontzi batzuekin uretan jolas batzuk egitea otu zitzaion. «Harri kozkor» bat bezala hasi zena, errealtate izango da sanferminetan, eta sustatzaileen asmoa da giroa sortzea eta jaiek izango duten egun gehigarrian jarduera berriak eskaintzea.

Lehena izango bada ere, Txalupinen Konkistak harrera bikaina izan du. Espazioagatik eta mareengatik, soilik zortzi ontzik hartu ahal izango dute parte astearteko probetan. Udalak piragua moduko batzuk erosi dituela baietsi du Iribarrenek, eta bakoitzean lau partaide arituko dira, haien artean proba ezberdinak egiteko. Hortaz, 32 pertsona arituko dira lehian Marealtan. Zortzi taldek parte hartuko badute ere, 24 apuntatu zirela jakinarazi du Papineko kideak, eta denentzat espazioa ez dagoenez, «galbahe» bat egin behar izan dute. «Jendeak ilusio handiarekin hartu du, eta *marroia* izan da taldeak

kentzea». Izena eman zuten guztiek parte hartuko ez badute ere, antolatzaileak pozik dira egitasmo berriak herrian izan duen harreragatik: «Zerbait zerotik sortu eta inork ezer jakin gabe 24 talde eta ia 100 pertsona apuntatzea sekulakoa da. Ikaragarria da ikustea herriak nola erantzuten duen. Nire ustez hori da politena».

Araukak

Txalupinen Konkistan parte hartzeko, arau batzuk jarraitu behar izan dituzte antxotarrek. Antolatzaileek bi baldintza jarri zituzten, eta parte hartzeko horietako bat behintzat bete behar zela jakinarazi du Iribarrenek: talde mistoa izatea edo adinen arteko batez bestekoa eginda, 35 urtetik gorakoa izatea. Izan ere, sustatzaileen asmoa da jende heldua ere aritzea eta haien parte hartzea sustatzea.

Bestalde, eta jardueraren gaiari helduz, partaideak pirataz mozorrotu beharko dira derrigorrez. Piratek Antxoko urak bere egingo dituzte. ■



KBL

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

943 25 91 79

electricidadoarso@gmail.com

kblelektrizitatea.eus

zure taxia!



Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

Croissanteria



AXULAR

Ongi pasa Sanferminak!

Axular Plaza, 3. Pasai Antxo

Tel.: 943 34 05 42

Handiak dira Antxoko sanferminak, eta antxotarrek herriko festen pareko topaketa batez gozatu ahal izango dute igandean (hilaren 5ean), Pasaiaiko Erraldoien Konpartsak antolatuta, erraldioen bigarren topaketa egingo baita barrutian, goizez eta arratsaldez.

Antxon erraldioen bost konpartsa bilduko dira: Pasaiakoa, Lazkaokoa, Ororbiakoa, Herriberrikoa eta Gareskoa. Horiek guztiak Gure Zumardian elkartuko dira 11:00etan, eta plazan ikusgai egongo direla kontatu du Markel Oyarzabal Pasaiaiko Erraldioen Konpartsako zuzendariak. Herritarrek, gainera, ikusgai egongo diren erraldoiekin argazkiak atera ahal izango dituzte.

Herritarrek erraldoiez gozatu ondoren, bost konpartsak kalejiran aterako dira 11:30ean, eta Antxoko kale, txoko eta bazter guztiak bere egingo dituzte. Konpartsa bakoitzak dantzan jarriko ditu bere erraldoiak, eta ikuski-



Pasaiaiko konpartsako lau erraldoiak. HITZA

Erraldoiak dira Antxoko San Fermin jaiak

MIKEL DEL VAL GARCIA

zun propioak egingo dituzte, pasaitarren gozamenarako. Orotara, hogeitaz inguru bilduko dira barrutian, eta Pasaiaiko konpartsak dituen lau erraldoiekin aterako dela jakinarazi du Oyarzabalek: Mikeletearekin, Inudearekin, Arrantzalarekin eta Bateleraarekin. Antxora etorriko diren

konpartsek, erraldoiez gain, beren buruhandiak ere ekarriko dituzte. Topaketa handia izango da, eta «gogotsu» daude antolatzaileak.

Konpartsen eta erraldioen egitekoak, baina, ez dira goizeko jardueretara mugatuko, bazkaldu ondoren festak jarraitzen izango baitu. Goizeko formatuaren antzera, bost konpartsak kalejiran irtengo dira berriro Gure Zumarditik, 16:30ean, eta beren dantzak Antxoko kaleetan zabalduko dituzte.

Uda bizia

Arraunarekin gerta daitekeen moduan, udak sutsuak izaten dira erraldioen konpartsentzat, epealdi horretan izaten baitira herriko jai eta ospakizun gehienak. Oyarzabalek aitortu du uda «topera» dutela: irteera pila egingo dituzte aurtan, eta horietako asko Pasaiaik kanpo izango dira. Herriko mugetatik aterako badira ere, Pasaiaiko erraldoiak oso presente izango dira lau barrutietako jaietan. San Pedron izan dira jada, ekainaren 26tik 30era bitartean egin baitziren sanpedroak. Orain Antxoko sanferminetan izango dira, eta Trintxerpeko karmenak eta Donibaneko santioak ere girotuko dituzte.

Beste herrietan ez bezala, Pasaiaiko konpartsak osasun ona duela adierazi du zuzendariak. Oyarzabal Berakoa (Nafarroa) da, eta 2022an iritsi zen Pasaiaiko konpartsara. Momentu horretan konpartsa egoera kaskarrean zegoen, eta horri buelta eman diote dudarik gabe. Une honetan 25 pertsona daude murgilduta konpartsaren bueltan, eta pozarren da zuzendaria. «Uste onua baino hobeto doakigu. Pasaian ikusten ari gara gauzak ondo egiten ari garela. Gure asmoa da topera jarraitzea, jendea etortzea eta herritarrek Pasaiaiko konpartsa ezagutzea».

Ostirala 3
23:00.
DJ Iker Rodriguez.

Larunbata 4
18:30. Bertsolariak:
Ametz Arzallus,
Andoni Egaña,
Maddi Ane Txoperena
eta Alaia Martin.
23:00.
DJ Iker Rodriguez

MIMOS TABERNA

Igandea 5
13:30. Bermutekea
Mimos tabernan
Moises Leal Castro
cello jotzailearekin.
18:30. Arratsalde
pasa, mojitoekin.
23:30. DJ Nemux.

Astelehena 6
01:30. DJ Nemux.

Asteartea 7
20:00. Erromeria
Alkarkidetxarangarekin

Asteazkena 8
18:30. DJ Mikeltxi

@mimosantxo

Gure Zumardia. 20110 Pasai Antxo. 943 24 90 23





EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Imanol Saiz

DANBORRADARIK GABE, SANFERMINIK EZ

DANBORRADAK. Aurten ere lau danborrada izango dira Antxoko San Fermin Festeetan. Antxoko danborrada gaur gauerdian aterako da, eta bihar (larunbata) Berrako egoitzara joango da. Basarirenak, berriz, biharko 20:30ean hasiko du bidea, eta haurrena hilaren 7an izango da, 17:30ean.



Imanol Saiz

ARRANTZALEEK BADUTE EUREN TXOKOA

HILAREN 4AN, 17:00ETAN. Hainbat dira Galepertarrak elkarteak festetan antolatzen dituen jarduerak. Horietatik bat haurrentzako arrantza txapelketa da. Iaztik, arrantzaren zale eta elkartekide zen Julian Materen omenezkoa da txapelketa. Berez txikienentzat jarduera den arren, guraso edo helduen ezinbesteko laguntza izan ohi dute arrantzale gazteek.



Ricardo Albin

SALTSEROAK, BETERANOENEN TXANDA

HILAREN 7AN, EGUN OSOZ. Saltseroak lagunartea adin jakin batetik gorako antxotarren bilgunea da. Euren eguna, San Fermin Eguna da. Urtero, eguerdian, kalebuelta egitera ateratzen dira barrutira, ondoren bazkaria egiten dute Biteriko karpan, eta jarraian dantzaldirako tarte hartzen dute. Denenak baitira sanferminak, haur, gazte eta helduenak.



PASAIAKO UDALA

**ERASO SEXISTARIK ETA
LGTBOFORIK GABEKO JAIK!**

**FIESTAS SIN AGRESIONES
SEXISTAS NI LGTBOFOS**



PASAIA
BATERA GARENA
COMPARTIENDO, SOMOS



pasaia libre

